

S I N D I K A I H e z i k e t a S a h o n d u z

U. O.
orokorra

1.

Zer da **LAB?**


LAB
Hezkuntza

Zbkia

SAK 00036

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

ZBAREN



1.

Zer da LAB?

1. Zer da LAB ?

Idazlea: **Joselu Cereceda.**

Editatu: **Ipar Hegoa Fundazioa**



1.

LAB orokorra

Sindikal Heziketa

Zer da LAB?

Euskal Herriaren kokapen geografikoa.

Lurralde zatiketa.

L.A.B.en jardun-markoa.

E.L.M.aren aurrekari historikoak.

L.A.B.en sorrera.

Diktadura frankista

LABen jatorria.

L.A.B.en sorrera.

-Langile eta abertzaleen erakunde baten premia.

-K.A.S. koordinakundearen sorrera.

-L.A.B., Asanblada mugimendutik sindikatura.

-Kongresuak eta gainerako E.N.A.M.ekin lotura.

-L.A.B., sindikatu soziopolitiko.

L.A.B., nazioarteko testuinguru soziopolitikoan.

Kapitalaren mundializazioa eta liberalismoa.

Gizarte lorpeneren murrizketa.

L.A.B. erakunde internazionalista eta solidarioa.

Europar eraikuntza. Maastricht-eko ituna.

L.A.B. eta Europar eraikuntza.

Estatu espainiarra.

Saio baten porrota eta agorketa.

Politika antisoziala, monetarismoa, pobretzea eta paroa.

Hego Euskal Herria.

Gatazkaren sustraiak.

Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa.

Sindikalismoa Hego Euskal Herrian.

-Euskal Herriko errealitate sindikala.

-ELA-LABen arteko ekintza batasuna.

LABen helburu soziopolitikoak.

Askatasun demokratikoen aldeko borroka.

Lan Harremanen Euskal Markoa (L.H.E.M.).

Lanaren eta aberastasunaren banaketa.

Euskal Esparru Sozioekonomikoa (E.E.S.).

1. Zer da LAB ?



Euskal Herriaren

kokapen geografikoa.

Euskal Herria Europako hegoekialdean kokaturik dago, Estatu frantziarrak eta espainiarrak bi zatitan banatua. 20.864 Km²-ko hedadura du eta 2.900.000 bizilagun inguruko populazioa. Bere hiriburu historikoa Iruñea da.



1. Zer da LAB ?

Euskal Herriak 7 herrialde edo lurralde historiko ditu: Estatu espainiarrean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, eta Estatu frantziarrean Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Iparrerean Landak eta Biarno (Estatu frantziarra) eta Kantauri Itsasoa ditu mugakide; Hegoan, berriz, Errioxa eta Zaragoza (Estatu espainiarra); Ekialdean Biarno (Estatu frantziarra), Oskara eta Zaragoza (Estatu espainiarra); eta Mendebaldean Kantabria, Burgos eta Errioxa (Estatu espainiarra).

Euskal Herria. Bi estatutan banaturiko nazio bat da.



Euskal Herria
hiru Administrazioetan
zaturik dago.

Lurralde zaturiketa.

Estatu frantziarrean kokaturik dauden 3 herrialdeek (Ipar Euskal Herria) Pirinio Atlantiarren frantziar Departamendua osatzen dute, Biarnorekin batera, Akitaniako eskualdean, hiru euskal herrialdeok inolako autonomiarik ez dutelarik departamendu barnean.

Estatu espainiarrean kokaturiko 4 herrialdeei dagokienez (Hego Euskal Herria), bi Autonomi Elkartetan banaturik daude Espainiako Konstituzioak ezarritako marko juridiko-politikoaren arabera: Nafarroako Foru Komunitatea eta Eusko Autonomi Elkartea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).

Erraz ondoriozta daitekeenez, frantziar zein espainiar Konstituzioak horretan sailtzen dira: euskal herrialdeen administrazio antolaketa Euskal Herriari nazio gisan dagokion egiazko geografi esparrua islada ez dezan.



Honstituzioa. Hego Euskal Herriak Espainiako Honstituzioa arbuiaatu zuen erreferendumean.

Nabaria da administrazio zatiketa horren asmo politikoa, euskal nazioizana ezagutzeari bi Estatuaren uko historiko etengabea isladatzen duena. Ukapen horrextan datza, hain zuzen

1. Zer da LAB ?

ere, Historiak eta begibistako errealitateak behin eta berriz ezeztatzen dituzten arrazoiketa iruzurti eta erreakzionarioen bidez estali edo gutxietsi nahi den gatazka politikoaren sus-

traia. Euskaldunen hizkuntza da, bi Estatuak sustaturiko diglosia basatiaren kontra ere bizirik dirauena, euskal errealitate bereizgarriaren frogarik biribilena.



Independentzia. Euskal Herriak bizi duen menpekotasun-egoeraren aurrean aukera bakarra.

L.A.B.en

jardun-markoa.

LAB Sindikatuak Hego Euskal Herria du jardun-markotzat. Horrexegatik hartzen da esparru hori deskribatzen eta analisisien erdigunetzat.

Euskal abertzaletasunaren bizi-

pen historikoari erantzunez, LABek Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanen sakontzea bultzatzen du bere lan sindikaletik, euskal nazioaren lurralde batasuna gauza dadin etorkizunean.

E.L.M.aren

aurrekari historikoak.

Euskal Langile Mugimenduak oso lotura hertsia du Euskal Herriaren garapen historikoa markatu duten gizarte, politika, ekonomi eta kultur izaerako funtsezko elementuekin.

Euskal Herriaren ekonomi garapenak bat-bateko norabide aldaketa

izan zuen XIX. mendean, Herrian nagusi zen egitura prekapitalistaz landako elementuen eraginez.

Industrializazioak erro-errotiko hasiera izan zuen hemen, nekazaritza, abeltzantza eta artisau moldeak hautsiz, Bizkaiko burdin meatzeak in-

1. Zer da LAB ?



Meataritza. Meataritzaren
ustiapenak aldaketa erabakikorra
ekarri zuen Eusko Herriarentzat.

tentsiboki ustiatzeko erabakia hartu zenean europar eta espainiar Kapitalismotik. Horrek ekonomi mailako ezezik, gizarte eta kultur mailako brankabuelta eragin zuen eta, erraz

ulertzekoa denez, ondorio politiko handiak ekarri zituen handik denbora gutxira.

Nekazaritza sektoreko krisiak lan-esku merkea eman zuen, nahiz eta hura hein batean baizik ez zen gelditu meatze lanean, hain zen basatia, izan ere, indarrean zegoen ustiakuntza sistema. Bertoko jendeak nahiago


izan zuen emigrazioa edota nekazari eta industri lanaren konbinaketa. Beraz, meatze sektorea etorkinen lan-eskuaz hornitu zen gehienbat, hauek lan baldintza penagarriak jasan behar izan zituztelarik.

Hasierako industri kapitalismoak bertoko langileen eta immigranteen arteko enfrontamendua bultzatu zuen, interes politiko doilorren kariaz biziagotu zena. Kultur ezberdintasunek eta Euskal Herriaren eskubide historikoen abolizioak sorturiko egoera politikoak areagotu baizik ez zuten egin prozesu hura.

Hala Partido Socialista Obrero Español alderdia (PSOE), nola bere zentral sindikala, Unión General de Trabajadores (UGT), ustiakuntza basatiari aurrez aurre jarkitzen eta gizarte-aldaketa bultzatzen nabarmendu ziren hasiera batean. Jarrera iraultzaile hori aldatuz joan zen, halere, forma moderatuagoak eta sistemak errazago asimila zitzakeenak hartu arte.

Eusko Alderdi Jeltzaleak
XIX. mendearen amaieran sortua.

Euzko Alderdi Jeltzalea (PNV) XIX. mendearen azkenerantz jaio zen eta Solidaridad de Obreros Vascos (geroago E.L.A. izango zena) sortarazi zuen 1911n, langileen artean gero eta eragin handiago eta geldiezinagoa zeukan UGT-ri indarra kentzea zuelarik xede nagusi.




1. Zer da LAB ?

SOVek PNVren ildo ideologikoei jarraitu zien, eta azken honek ere bereganatu egin behar izan zuen, azkenean, industri ekonomiaren presentzia itzulezina Euskal Herrian.

SOVeko arduradunek ez zuten izan inoiz zalantza izpirik "tirania gorria dei geniezaiokkeenaren nagusigoa" ekiditea zutela helburutzat aitortzeko, sozialistek kapitalismo industriaren hastapen haietan Euska Herrian burutu zuten ideologia eta praktika sindikala zeharka aipatuz. SOV Sindikatuak euskal abizen bat gutxienez eta fede katolikoa exigitzen zituen afiliatu ahal izateko. Ugazaben eta langileen arteko klase-"harmonia" defendatzen zuen.

Datu hauen aurrean erraz uler daiteke Euskal Langile Klasearen barruan sortu zen dualismoa. Batetik ezker estatala, estatugabeko herrietako arazo nazionala burgesia txikiaren gauza zela defendatzen, eta bestetik euskal erakunde politiko eta sindikalak, nazio eta gizarte askapeneko borroka bateratzea lortzeko ezgai.

Dualismo hark enfrontamendu laztzak sortu zituen Euskal Langile Klasearen barnean. Egoera horren ondorioz, langileriak bere klase-interesak defendatzeko nazio-askapenaren borroka behar duela barneratzeko ideologi esparrua hutsik geratu zen. Ideologia hori ezin zuen sortu ez eskuin nazionalistak ez "ezker" estatalak.



S.O.V. Gaur egun E.L.A.-S.T.V. dena.

L.A.B.en sorrera.



Diktadura frankista.

1936ko Altxamendu Faxistak etapa hits eta beltza ekarri zuen Euskal Herriarentzat alderdi guztietatik begirata. Faxistek bortizkeria basatiz jazarri zuten erreibindikazio sozial zein nazionalaren keinu txikiena ere. Estatu mailako zein Euskal Herriko sindikatu eta alderdiak ezabatuta geratu ziren eta ozta-ozta erakutsi ahal izan zuten erreakzio ahalmen nimiñoren bat.

Garai hartan eraginkortasunik gabe ageri zen EAJren burges nazionalismoak eta euskal nazio arazoa ulertzeko ezgai zen ezker estatalak erabateko dualismoa bultzatzen zuten, eta, horrek horrela irauin balu, zorigaiztokoa izan zatekeen Euskal Herriaren eta bertako langile klasearen etorkizun historikorako.

LABen jatorria.

Euskadi Ta Askatasunaren (E.T.A.) sorrerak 60ko hamarkadan Euskal Nazio Askapenaren Mugimenduari (ENAM) ematen dio hasiera. ETAK proposatutako formulazio sozial eta nazionalak burges nazionalismoarekiko funtsezko desberdintasunak zedarritzen dituzte. ENAMen ideologi heldutasunerazko bilakaeran beti mantendu izan da arazo nazional eta sozialaren arteko elkarlotura.

ETAren V. Biltzarrean (1967) lortu zen iritzia eta ideologia aglutinatzeko gai zen sintesia, hots, "nazio askapenak gizarte askapena galdatzen duela". Gogoeta horiek praktikara eramateko, ETAK Langile Frontea sortu zuen V. Biltzarrean, erreibindikazio nazionalak eta langile borroka bate-ratzen saiatzeko. L.A.B.-en premia azaleratzen ari zen.

1. Zer da LAB ?

LABen sorrera.

Langile eta abertzaleen erakunde baten premia.

70ko hamarkadan, Euskal Herrian frankismoaren kontrako borroka gori-gori zegoenean, langile mugimendua enpresetatik abiatuz antolatu zen eta eginkizun erabakiorra izan zuen diktaduraren aurkako enfrontamenduan; testuinguru horretan, gero eta bizikiago nabari zen langileen masa-organizazioaren premia. Aipaturiko Langile Frontea, ETArekin zuen loturarengatik bideraezina, 1969an desegin zen.

Horren aurretik, 60ko hamarkadan,

H.A.S. Hoordinakunde Abertzale Sozialista, sortu zentik L.A.B. horren kidea izanik.

Langile Batzorde Abertzaleak sortu ziren, baina ez zuten lortu mamitzerik. Halere, diktadorearen desagerpen fisikoa hurbil ikusten zenez, langile organizazio egonkor bat sortzeko premia bizia nabari zen. 1974ko udazkenean L.A.B. sortu da, aipaturiko Langile Batzorde Abertzaleetatik eta ETAren Langile Frontetik eratorritako prozesuaren burutzapen gisa.

Fundazio-printzipioak lantzean, LABek **“nazio gisa zanpaturik da-goen herri baten masa-organizatatzat definitu zuen bere burua, Euskal Langileriaren askapena, independentzia onartzen duten guztiak barne hartuz, jarriz helburutzat”**. LABek bere gain hartzen du funtzionamendu demokratikoa ziurtatzea organizazio maila guztietan.



K.A.S. koordinakundearen sorrera.

1975ean Koordinakunde Abertzale Sozialista (K.A.S.) sortu zen, frankismoak Txiki eta Otaegi euskal ekin-tzaile abertzaleei ezarritako heriotza zigorra exekuta ez zedin sortua hasiera batean. Baina KASek iraun egin zuen Erreforma Politikoaren aurrez aurreko fronte gisan; izan ere, Erreformak, diktadorearen heriotzaren ondoren halamoduzko "demokrazia" bat ezarriz, Autodeterminazio eskubidea ukatzen jarraituz nahi zituen konpondu Estatu espainiarrak zantzen zituen -eta dituen- nazioekiko arazoak. Eskubide horren ukazioa baitzen -eta jarraitzen du izaten-, Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko gatazkaren oinarritzko sustraia. KAS hasieratik bertatik egon zen ETAK eta organizazio politiko nahiz sindikalek osatua. LAB bere sorreratik bertatik izan zen KASen osakide.

LAB, Asanblada Mugimendutik sindikatura.

1976an LABek bere Alternatiba Sindikala aurkeztu zuen, "langile klasearen askapen osoa" xedetzat hartuz. Ondorioz, LABek organizazio so-

ziopolitikoaren izaera zuen eta "ekin-tzaileen eginkizun hezitzailea Asanbladatan" bultzatu zuen.

1977an, Batzar Nazionalaren erabakiz, LAB asanblada-mugimendutik Sindikatu bihurtzea onartu zen. Honako helburu honekin soilik: lege aldetiko aukerez baliatuz, langileriaren organizazio-prémiei hobeto erantzun ahal izatea, baina bere susterrak ahaztu gabe, hots, demokrazia parte-hartzailean eta ordezkaritzan oinarritua, Langileen Asanblada hartuz eztabaida eta erabakien oinarritzat.

Kongresuak eta gainerako E.N.A.M.ekin lotura.

1987an LABek bere lehen Kongresua egin zuen eta, alde gutxigatik, KASetik irtetea erabaki zen Erreforma Politikoaren prozesuan sartzea onartzen zutenen -eta geroago eszizio bat burutuko zutenen- botoari esker.

Bi urte geroago, barne-tentsio gogorren ondoren, LABek KAS Koordinakundera itzultzea erabaki zuen bere II. Kongresuan.

III. Kongresuak (1992) Sindikatua-
ren eguneratze lanari ekin zion arlo

1. Zer da LAB ?

guztietan, ideologiatik hasi eta organizazio alorreraino. Ideologiari dago-kionez, honako hauek izan ziren elementu aipagarrienak: Europaren eraikuntza-ereduari ezetza, industri eraispenari eta enpleguaren behin-behinekotasunari erantzuna eman beharra eta harreman sindikaletan estrategia berri bat, E.L.A. -rekin elkarlanera joz funtsezko helburu amankomunen inguruan: Lan Harremanen Euskal Markoa eta eredu zentralistarekiko aurkakotasuna.

LABen IV. Kongresua 1996an izan zen. Kongresu honetan, Sindikatuak korporatibizazioaren arriskuei buruzko autokritika bat egin zuen, ordurarteko

jarduera sindikala lana zeukatenen sektoreei begira burutzearen ia erabat. Gizarte desegituraketaren kontra borrokatzeko, langabetuen, gazteen eta emakumeen arloak sortu ziren. Sindikatuak berretsi egin zuen ekintza sindikaleko batasunean aurrera jarraitzea Euskal Nazio Eraikuntzaren il-dotik, eta sektore-egitura sendotu egin zela egiaztatu zen.

LAB, 1994ko hauteskunde sindikaletan, Ordezkaritza handieneko Sindikatu izaerara iritsi zen, horrek instituzio-eremu orotan eta negoziazio kolektiboko eremu guztietan legez parte hartzeko aukera ematen diolarik. Berez garrantzitsua den hori are garrantzitsuagoa da bilakaera historikoari erreparatuz gero. 1980an L.A.B.-ek %4,58ko ordezkartitza lortu zuen, 1982an %5,74koa, 1986an %10,62koa, 1990ean %12,6koa eta 1994an %15ekoa.

LAB bere sorreratik bertatik sarturik egon den organizazio-markoak ere bilakaera historikoak exigituriko aldaketak izan ditu denboran zehar,



L.A.B. 1997. urtean Sindikatu bihurtu zen.



KAS osatzen zuten erakundeek eztabaida eta erabaki-autonomia osoa dutelarik gaur egun. Egoera horrextan aurkitzen da LAB Sindikatua ere, pentsamendu eta eskuhartze-ildoak bere egitura propioetatik sortzen direlarik. Helburu estrategiko berdinak dituztela kontuan hartuz, LABek funtsezko deritzo esperientzien eta ekimenen komunikazio erraza eta elkarrekikoa bultzatzeari ENAMeko organizazio guztiekin.

III. Biltzarra. 1992ko maiatza.
LAB eguneratu zen ideologi eta antolakuntza-arloetan.

LAB, sindikatu soziopolitiko.

Ukaezina da LABek Euskal Langile Mugimenduari dagion ekarpena. Sindikatuak eta bere ekintzaileek gertuko erreibindikazio indibidual zein sek-

1. Zer da LAB ?

torialengatik dihardute borrokan, baina begibistatik inoiz galdu gabe gizar-te aldaketaren premia eta Nazio Askapenaren Prozesua aldeztu beharra. Hortik bere eskuhartze sindikalaren izaera soziopolitiko eta langileriaren garapen osoa langileen elkartasun internazionalistaren koordinaden barruan bultzatzeko borondatea.

LABek, erakunde sindikal gisa dagokion jardueraz gain, zuzenki politikoak diren ekintzetan eta eztabaidetan hartu du parte (Erreforma Politikoa,

Konstituzioa, Autonomi Estatutuak, Leioiz, OTAN, Europako Batasuna...).

Era berean, LAB, antzinako SOVEN jatorria izanik Hego Euskal Herrian gehiengo duen ELA sindikatuarekin batera, azken urteotan itxaropen gehien eman duten ekintza politiko-sindikaletariko batean izan da protagonista. Sindikatu biok Euskal Nazio Eraikuntzarako akordio estrategiko bat izenpetu zuten 1995ean, garrantzi handiko urratsa izan delarik maila guztietan.



IV. Biltzarra. LABek Nazioa Eratzeko programaren defentsari eutsi zion.

L.A.B.

nazioarteko

testuinguru soziopolitikoan.



Kapitalaren mundializazioa eta liberalismoa.


Munduko Ekonomia bere jardueraren globalizazio prozesu batean murgildurik dago, kapitalaren kontzentrazioa eta metaketa areagotzea duela helburu bakar eta itsu. Ho-

Sindikatu Sozioekonomikoa. LABek Nazio Ashopenarako prozesuaren alde egiten du, beti ere aldaketa soziala ahazteke.

rrek Estatuaren arteko mugak "haustea" dakar, hiru bloke inperialistaren inguruko egituraketa eragin duela: EEBB, EB eta Japonia. Bloke horiek elkarloturik daude, elkarren lankide eta aurkari direlarik aldi berean.

1. Zer da LAB ?

Herrialde azpigaratuen ustiapenean eta lehengo desberdintasunen areagotzean oinarrituriko mundu-ordenu berri hori zuritzeko liberalismo berriaren ideologiara jotzen da (neoliberalismoa), produktibitatea topera bultzatzea xedetzat jarritz eta prozesu horrek nahitaez sortzen duen "hala-beharrezko" pobrezia eta desberdintasuna, hala-nola sistema babesteko hartzen diren neurri basatiak, modu horretara zurituz.



Enpresa multinazionalak soilik izango dira nazioarteko garapen-eredu horren onuradunak.

Sistemak Mundu Bankua eta Nazioarteko Moneta Fondoa darabiltza ekonomi politikaren tresna gidarizat, NATO Nazioarteko Ordenu Berriari "segurtasun" eta "egonkortasun" garrantiak emateko beso armatutzat, eta NBE, berriz, bere interes politiko-ekonomikoak eragoz ditzakeen erabakiei betoa jartzeko.

Gizarte lorpenen murrizketa.

Lan merkatuaren desregulazioa defendatuz, borroka luzeen ondorioz eskuratutako lorpenak kentzen ari zaizkio langileriarri. Hori, Kapitalismoaren aspaldiko ametsa izateaz gain, Sistemak berak eskatzen duena da, errentak Kapitalaren aldera aldatu eta etekin-tasa handiagoak lortzeko. Behin-behinekotasuna, lan-indarraren baliogaltzea eta desberdintasun sozialaren areagotzea dira, besteak beste, politika horren ondorioak.

Horri guztiori esker, enpresariak langileen aurrez aurre duten posizioa

→ L.A.B. nazioarteko
testuinguru soziopolitikoan.


sendotu egin da, are gehiago Lan Politikak lan-indarra gero eta gehiago kontrolatzera bideraturik daudela kontutan hartzen badugu, horrek lanera iristeko gero eta baldintza gogorragoak ezartzea ahalbidetzen duelarik, eta gizarte dualtasuna areagotzea, desenplegua eta behin-behineko enplegua nagusi diren munduan.

L.A.B., erakunde internazionalista eta solidarioa.

LABek, ezaugarri soziopolitiko-dun Erakunde Sindikala denez, Euskal Nazio Eraikuntzaren ikuspegitik eta elkarkidetza terminoetan fokatzen ditu Euskal Herriaren harreman internazionalak. Horren arabera, Kapital Multinazionalak egiten duenetik erabat alderantzizko erara planteatzen ditu nazioarteko harremanok.

Baliabide naturalak zaintzearen al-

de, egitura militarrek desmuntatu eta benetako desarme-politika egitearen alde, NBE lokabe eta giza eskubideen defendatzaile -hala nola Mundu Bankuaren (MB) eta Nazioarteko Moneta Fondoaren (FMI) kontrolatzaile- izango denaren alde egiten dugu apostu. Eta gure lankidetzaz luzatzen diegu Sindikatuei, Gobernu Kanpoko Erakundeei (ONG) eta mugimendu politikoei mundializazio kapitalistaren prozesuari galga jartzeko eta kidetasun eta elkarkidetza internazionalistaren ideologia zabaltzeko.



Internazionalismoa. LABek
laguntzen du kapitalismoa
geldiarazten.

1. Zer da LAB ?

Europar eraikuntza. Maastrich-eko ituna.

Europar Eraikuntzaren oraingo saio hau ekonomi mundializazioaren ikuspegitik garatzen ari da eta, beraz, kontraesan analogoen menpe dago.

Maastrichteko Ituna eta beronen Konbergentzi Plana da Eraikuntza horren funtsezkoa elementua. Asmo onen bildumatzat aurkeztu zen hura

(aurrerapen tekniko eta soziala, nazioarteko lankidetzeta handiagoa, moneta bakarra...) Moneta Politikaren handiespen bihurtu da, inflazioaren, defizit publikoaren eta interes tasen kontrolak lehenetsiz alokairuen eta enpleguaren bizkarretik.

Maastrich-eko Ituna. Europan sartzeko helbururik garrantzitsuenaren Moneta Politika kontrolatzea eta goraiatzeko da.




Defizit publikoaren kontrola da edozein preziotan lortu beharreko mito sakratua, gizarte lorpenak suntsituz eta politika fiskal gero eta atzerakoiagoak ezarriz. Desberdintasun sozialak gero eta handiagoak dira.

Erregioaren helburu ezkutua Estatu barruko Herrien errealtatea ezabatzea edota suntsitzea da, bertako kulturak bultzatu eta eskubide demokratikoak defendatu beharrean.

Langileriak ez du inolako ordezkaritzaren eskubiderik ez ezein erabakitan eskuhartzeko biderik, Gizarte Gutuna hormatuta dago eta Estatuak bereganatzen dituzte enplegu, zerga-ezarpen, gizarte-babes eta Lan Harremanen politikak oro.

Sindikatu europar gehienek Autodeterminazio Eskubideari buruz duten jarrera negatiboak, bestalde, eredu antidemokratiko honen egiazko alternatiba jorratzea eragozten die.

Europaren eraikuntza. Oinarritzat hartuta gaur egungo Estatuetan integratzea. Herrialdeen Eskubideak deuseztatzen ditu.



1. Zer da LAB ?



L.A.B. eta Europar eraikuntza.

LABen iritziz, Europar Eraikuntzak zentzurik edukiko badu, Giza Eskubideen eta Herrien ezagutzan, erregulazioan eta defentsan oinarrituta izan behar du, azken hauek direlarik -eta ez Estatuak-prozesuaren egileak, xedetzat etnia eta kultur ezberdintasunekiko begirunea izango duen eta Ekialde eta Mendebaldeko Herrial-

Autodeterminazio Eskubidea.

Europaren Eraikuntzak onartu behar du Herrialdeek beraien etorkizuna auzeratzeko duten eskubidea.

deen politika integratzailea garatuko duen gizarte eredua hartuz, elkarkidetzan eta ekologian oinarriturikoa, helburuok lortzeko Europako Mone-ta Sistema birmoldatu eta Sindikatuen eta gizarte- agenteen lankidetzat bideratuko duen politika ezarriz.

Estatu espainiarra

Saio baten porrota eta agorketa.

Botere faktikoek inposaturiko trantsizio politikoaren ereduak krisi sakona du Francoren heriotzaren ostean. Inork ere ezin izan ditu kontrolatu botere horiek -aitzitik, haiekin lan egitea izan da den-dena bideratu duena-, ez Trantsizio garaian Gobernuan lehen alderdia izandako Unión de Centro Democrático-k (UCD), ez PSOEk, ez gaur egun Gobernuan dagoen Partido Popularrek (PP).

Nabariak dira, egun, eredu horrek dituen kontraesanak iraganeko ondorengo gaingaitu ahal izateko. Estatuko nazioen arazoa gero eta handiagoa da, ekonomi krisiak eta Europan sartzeak krisi politikosoziala eta ereduaren krisia oro har areagotzea eragin dutelarik.



Lanqabezia. Euskal Herriko egoera gizarte-alarmakoa da.

1. Zer da LAB ?

Politika antisoziala, monetarismoa, pobretzea eta paroa.

Egiazko botereek potitika neoliberal bat ezarri dute ekonomiaren eremuan, lehenago PSOEek txintik esan gabe eta orain PPK berotasun handiz onartu dutena. Monetarismo basati batean oinarrituz, egiazko ekonomiaz abstrakzio egiten da, dudarik gabe izaera estrukturala duten inflazioa eta merkatal defizita kostu ahala kosta kontrolatzen saiatuz. Soldatak murriztuz, pribatizazio politika basatia burutuz eta lan merkatua iragane-ko kapitalismoaren garai tristeak gogorarazten dituzten egoerataraz eramanaz lortu nahi dute hori.

Produkzio ehuna serioski kaltetuta geratu da eta langabezi mailak Europako Batasuneko batezbestekoa baino goragokoak dira. Hori horrela, Trantsizio Demokratikoaren saioak porrot egin duela esan daiteke, eta

beste eredu baten premia dagoela, Herrien Autodeterminazio Eskubideak sarrera izango duen bestelako Estatu-ikuskeran oinarritua. Egoera honetan, LABek Espainiar Estatuko Herrietako (Euskal Herria, Galizia, Kanariak...) Sindikatuekin lankidetzaz hertsira jotzeko apostua egiten du, hala alor sozioekonomikoan nola herri horietako Langileriarik botere eta erabaki-kotetara iristea ahalbidetzen dioten arloetan.



Politika Ekonomikoa. Politika neoliberalak kalte haundiak eragin ditu ekoizpenean.

Hego Euskal Herria.



Gatazkaren sustraiak.

Espainiako Estatuarekin dagoen aurkaketa historikoaren jatorria Euskal Herriaren Subiranotasuna armen indarrez kendu izatean datza. Duela 20 urte hasitako Trantsizioak indarrez kendutako eskubideen erreibindikazioa neutralizatzeko saioa egin zuen, Autonomi Estatutu bat Nafarroan eta beste bat Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban ezarriz; ho-

"Euskal Gatazka". Euskal Herriko eskubide demokratikoak ezeztatu nahi dira errepresioaren bidez.

rrek, beste banaketa politiko artifizial bat gaineratzeaz aparte, ez du balio izan Subiranotasunaren erreibindikazioari galga jartzeko.

Estatuak hedabideen erabilpen neurrigabe eta toxikatzaileren bidez

1. Zer da LAB ?



baizik ezin du bere jarduera demokrati jantziz mozorrotu, baina 600 preso politikoak eta milaka errefuxiatuak dira horren froga kontestaezina. Errepresioaren eta Euskal Herriaren oinarrizko eskubideen onarpen ezaren aurrean, Ezker Abertzalea izaera politiko-sozialeko ofentsiba bat burutzen ari da, eta, orain arteko erantzun bakarra errepresioa izan bada ere, gatazkaren irtenbideak argitzen ari da.

Horren guztiaren froga ETAk 1995eko apirilean egindako eskaintza politikoa da. Bertan argi eta garbi adierazten dira gatazkaren guneak: Lurraldetasuna, Autodeterminazioa

eta horren aitortpena bermatuko duten Akordioak Estatu Espainolarekin. Baldintza horietan borroka armatua utzi eta Negoziazio Politikoaren prozesu orokor bati emango litzaioke hasiera, zerikusi duten parte guztiak esku hartuko luketelarik (ETAk, Estatuak, Alderdi politikoek, gizarte-agenteeek...), Euskal Nazio Eraikuntzaren prozesuari helduko liokeen etapa berri bati bide emanez.

LABek eskaintza politiko honen balorazio positiboa egiten du, gatazken, borrokaren, errepresioaren eta sufrimenduaren aro bati amaiera ematea ekarriko lukeelako.

Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa.

Egoera sozioekonomikoaren ezaggarriak honako hauek dira: langabezi tasa altuek, lanaren behin-behinekotasunak, zerga-ezarpen atzerakoiak, izaera antisozialeko aurrekontuek... desberdintasunak eta gizarte desegituraketa areagotu egin dituzte.

Produkzio-ehunen suntsipen orokortua (industria, arrantza, nekazaritza...). Industri sektorean bakarrik 50.000 enplegu galdu ziren 1990 eta 1993 bitartean, eta ez da hautematen baikortasunerako inolako arrazoirik. Ez dago desberdintasun sozialari gailga jartzen dion Sektore Publikorik, aitzitik, desberdintasun hori areagotu baizik ez du egiten. Lanaren eta gizarte-babesaren arloan legegintza-ahalmenik ezak, ekonomi eta industri politika propioak garatu ezinak, egungo

Desindustrializazioa. Euskal Herriko langabezi tasa Europako batezbestekoaren bikoitza da.


egoerari erantzun eraginkorrek emateko aukerari ateak ixten dizkiote.

Sindikalismoa Hego Euskal Herrian.

Euskal herriko errealitate sindikala.

Euskal testuinguru sindikalak al daketa sakonak izan ditu azken urteotan. Batetik, oso esanguratsua izan da LABen hazkundea, une honetan %15eko ordezkaritza duelarik.


LABen hedapena, Hego Euskal Herrian oro har gehiengo duen beste



1. Zer da LAB ?

Sindikatuarenarekin (ELA) batera, estatutua beste Sindikatuen ordezkariaren jaitsierarekin batera etori da. LAB izan da 1994ko hauteskunde sindikaletan hedapen handiena lortu duena 1990eko datuekin alderatuz.

Izaera estataleko Sindikatuek elkarrengana biltze-prozesua izan dute,



bai Hego Euskal Herrian baita Estatuan. UGTk betidanik ere Euskal Nazio Eraikuntzarekin bat ez datozen politiken alde apostu egiten duen bitartean, hurbilpen sindikalak antzeko jarreretara darama CCOO ere, UGT-CCOO tandemak joera erreakzionarioak erakusten dituelarik maiz.

ELAk eta LABek, batera, Hego Euskal Herriko ordezkarien %50a osatzen dute gaur egun, CCOO eta UGTren %37aren aurrean. Datu hauek gizarte eraldaketaren ikuspegitik Euskal Nazio Eraikuntzaren prozesuari buruzko ELA-LAB akordioak duen garrantzia eta eragina egiaztatzen dute.

LABentzat, 14 urtetan bere ordezkari-tza laubiderkatzeak zera frogatzen du: sorreratik bertatik markaturiko ildo zuzena eta masek bereganatua dela.

Gainerako aukerek espektro sindikalaren %13a ordezkatzeko gutxi gorabehera.

Hauteskunde sindikalak. Ordezkaritza sindikalari dagokionez, LAB da gehien hasi den Sindikatua.

Euskal patronalari dagokionez, bere jardunak Hego Euskal Herriaren etorkizun ekonomiko eta politikoaz ez duela inolako zerikusirik esan dai-teke, eta etekin handiena lortzea duela xede bakartzat.

ELA-LABen arteko ekintza batasuna.

1995eko Aberri Egunean, ELA eta LAB Sindikatuek garrantzi politiko eta sozial handiko dokumentua sinatu zuten. Azken urteotako gertakari politiko itxaropentsuenetariko bat dela esan genezake.

Dokumentu horretan daude, arlo sozioekonomikoaren ikuspegitik,

Ekintza-batasuna. LAB, ELAekin batera, errebindikazio nazionalaren buru dira.



1. Zer da LAB ?



Euskal Nazio Eraikuntzari, oratzeko tresna zehatzak. Autodeterminazio Eskubidearen erreibindikazioari dagokionez, Lan Harremanen Euskal Markoa eta Euskal Herrian Esparru Sozioekonomikoa eratuz joateko premia galdatzen dira, estatutu-ereduaren higadura salatzen den bitartean eta Euskal Nazio Eraikuntza garatze bidean -gaur egungo arazo politikoaren konponbidea ziurta dezaketen bermeekin- eman beharreko urra-tsak zehazten.

Horren alde garrantzitsuenetako bat honexetan datza: ikuspegi politiko-sindikaletatik adostasun batera iritsi ahal izan dela euskal indar abertzaleek jarraitu beharreko bideari buruz, gero eta nabariago baita hemengo baketzeak eta demokraziak indar horien guztien batasuna eskatzen duela.

Akordioa sinatuz geroztik, bi Sindikatuk urrats bateratsuak eman dituzte, akordio horren, hala nola irekitako adostasun-ildoaren, baliogarritasuna eta premia berretsiz.

Gune Sozioekonomikoa. Nazio-erakuntzari ekitzeko, Euskal Herriak bere gune sozioekonomikoa behar du.

L.A.B.en helburu soziopolitikoak.

Puntu honetara iritsirik, gaur egungo abaguneari dagozkion helburu soziopolitikoaren sintesi bat azaltzera goaz.

Askatasun demokratikoen aldeko borroka.

Autodeterminazio Eskubidearen ezagutza LABen funtsezko helburu da. Helburu hori gauzatzeak Hego Euskal Herriko normalkuntza politikoa eta baketzea bermatuko lituzke eta euskal instituzio-markoari beharrezko Botere Politikoa emango lioke klase desbasteuen aldeko gizarte aldaketak lor daitezen.

Askatasun demokratikoen orotasunak (Amnistia, LHEM, EES, etab.) analisi artatsua eta sakona behar du, baina askatasunon lorpenerako nahitaezkoa da Autodeterminazio Eskubidea lortzea. Horrek Espainiar Estatuko Konstituzioaren aldaketa galdatzen du, hau

da, Estatuaren demokratizazioan aurrerapausua ematea, Estatu horrek azpiratuta dauzkan herri guztien onerako.

Lan Harremanen Euskal Markoa (L.H.E.M.).

Aurreko puntuaren arabera, LHEMa lortzeak zera inplikatzeko du: euskal instituzioek behar bezalako eskumenak edukitzea gizarte eta lan politika propioa garatu ahal izateko. Hori nahitaezkoa da Langileriaren aldeko aldaketa koalitatiboak lortu ahal izateko.

LHEMa behar-beharrezkoa da Hego Euskal Herriaren Enplegu eta Gizarte Segurantzako politika egokiak gara-

1. Zer da LAB ?



tu ahal izateko, lanik ez dutenei babesa emanaz eta lana dutenen kualifikazioa eta lanbide-birziklatzea bermatuko duen Etengabeko Lanbide Prestakuntza bultzatuz, eta Gizarte Segurantzaren eraispenari galga jarriz.

Zentzu horretan, LABentzat nahitaezkoa da Gizarte Segurantzaren Euskal Institutua sortzea, denentzako eta behar besteko prestazio duinak bermatuz.

Euskal Markoa. Lan-harremantarako Euskal marko bat aldarrikatzen dugu, politika sozial egokia garatu ahal izateko.

LHEM batek Hego Euskal Herri mailako Negoziazio Kolektiboa ahalbidetuko luke, eta horrek une honetan gauzatuz ari den langileen kontrako Lan Erreformari aurre egitea, hala nola Lan Harremanen demokratizatorako aurrerapausuak ematea ere erraztuko luke.


Lanaren eta aberastasunaren banaketa.

Hego Euskal Herrian, 90eko hamarkadan, langabezi tasa %20 eta 23 bitartean dabil, zifra horiek Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetakoaren halako bi esan nahi dutelarik. Gazteen artean langabezia %54koa da eta emakumeen artean %30ekoa. Egoera hau are alarmagarriagoa da, gainera, behin-behineko izaeraz egiten diren kontratazioak %90a gaindizten dutela kontutan hartzen bada.

Aldi horretan, produktibitateak %13 igon du eta soldatak, ordea, %2,6 bakarrik, begibistan utziz kapitalaren etekinak nabarmenki gehitu direla lanaren alokairuen aldean; baina horrek ez du ekarri enplegu gehiago sortzerik.

Deskribaturiko egoera horren aurrean, LABek lanaren eta aberastasu-

naren banaketa-politika baten alde egiten du apostu, izera estrategikoko politika, eta hori nazio eraikuntzaren ikuspegitik egiten du, hurrengo neurri hauei erizten dielarik beharrezko, besteak beste: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Euskal Institutu bat sortzea, laneguna drastikoki eta orokorki murriztea, aberastasuna birbanatuko duen zerga-politika abian jartztea, lanik ez duten lagun guztiei behin-betikotasunez eta orokortasunez estaldura emanez.



Gizarte-desberdintasuna.
Gizarte-desberdintasuna gero
eta nabarmenagoa da.

1. Zer da LAB ?

Euskal Esparru Sozioekonomikoa (E.E.S.).

EES ekonomi politiken lehentasunen aldaketa-premian oinarrituta dago; gure gizarte eta ekonomi errealtate propioarekin bat datorren garapena ahalbidetu behar du; eta aurre-rapen teknologikoak eta Kanpo Merkataritza asumitu behar ditu, gure balio propioak eta gure independentzia politikoa zein ekonomikoa galdu gabe.

EESak behar bezalako legegintza-eskumena galdatzen du honako hauetarako: Euskal Sektore Publikoa garatzeko, gizarte baliabideak Euskal Herriaren zerbitzura jartzeko, ekonomi eta zerga politika propioa bultzatzeko, industri politika sustatzeko, EBean ordezkari-tza edukitzeko, abelur-politikaren ildoak markatu ahal izateko eskuduntzak lortu ahal izateko, Banku Publiko propioa eduki eta eraginkorra izango den Euskal Administrazio Publikoa eskuratzeko. EESk, zalantzarik gabe, gaur egungo-en aldean ikusmolde desberdinetatik fokatu beharko du bere lana, enplegua izan beharko duelarik kezka han-

dienetako bat. Lan merkatuan bitartekaritza publikoa erraztuko duten instituzio propioak behar dira, Ekonomi Politikan norabide aldaketa ahalbidetuko dutenak, produkzio ehuna eraginkorki garatzea bultzatuko, Langile Klasearen aldeko izango diren Lan Harremanetan aldaketak bideratuko eta, azkenez, Ekonomi Politikan zein Lanbide Prestakuntzan -berau pertsonak lan munduan osoko garapena lor dezan egokiena izan behar duelarik- partaidetza sindikala aldeztuko dutenak.

LABen jardun sindikalak Ipar Euskal Herriarekin harremanak izatera eta bateratzeko bideak aurkitzera orientaturik egon beharko du ikuspegi sozioekonomikotik, ez soilik arlo sindikalean, baizik baita ekonomi, politika eta gizarte arloan ere. Eta EESk, azkenez, gizarte desegituraketaren aurkako borroka ere hartu behar du xedetzat, Langile Mugimenduaren desegituraketatik hasita.

Garai hitsa bizitzea egokitu zaigu, non langabeziak eta desideologizazioak lokarririk gabeko gizarte bat hezurmamituz baitoaz, berekoia, desklastetua eta sexuarekiko, adina-

rekiko, gaitasun fisikoarekiko diskriminatzailea, xenofobia...

Lan horrek borroka ideologiko antolatua eskatzen du; gazteek, langabetuek eta emakumeek beren antolaketaketa-elementuak aurkitu behar dituzte LABen, orain arte batere arretarik eskaini ez zaizkien ekintza-alorrei erantzun ahal izateko, demagogia eta paternalismotik ihes eginez.



Gizartean gertatzen ari diren balore-aldaketek erantzun egituratu eta landu bat behar dute

